

# ARRASATE

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Eguaztena / 2003ko apirilaren 16a / 627. zenbakia



ORAIN ETA HEMEN: ERRENTA AITORPENA, EUSKARAZ/6 • ALTAMIRAKO JAIK/7





**BERRIAK**

**Ezerk ez dizu alde egingo**

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

**Aste Santuan**  
20:00etan

Aurkezlea:  
**Maidor Osa eta Gorka Etxabe**



## KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu errenta aitorpena euskeraz egin ahal izetie?



**BELEN ERRASTI**  
Langillie

Ondo dauela. Gu euskaldunek gare, eta normala da aukera hori eukittie. Izen leike hasiera baten papeleu egitteko arazoren bat edo beste eukittie, baiñe hori be iketik dogu.



**JESUS MARI HERIZ**  
Langillie

Administraziñuen egitten dot lan, eta errenta aitorpena euskeraz egitten badot be, onartu egin biher dot oso gatxa dala. Oso euskera teknikue da, eta hori hobeke-tako egin biher dogu lan.



**MIKEL URIBETXEBARRIA**  
Langillie

Ekimen positibue dala, aspaldi egon biherko litzakeena. Euskerie hizkuntza ofiziala izenda, bestien moduen tratauta egon biherko litzake. Euskera ulergarrixen egon daixela.



**ROSA MARI GARCÍA**  
Langillie

Ondo dauela uste dot. Gaur egun dokumentu gehixenak euskeraz etorten jaku: bankuko fakturak, telefonokuek... Errenta aitorpena euskeraz egitteko aukerie izetie aurrerapausue da.



**FANI GONZÁLEZ**  
Ikaslie

Ondo dauela. Jentiek euki daixela bai euskeraz edo bai erderaz egitteko aukerie, baiñe ez errenta aitorpena bakarrik, beste gauza danak be. Elegiduteko aukerie egon biher da.



**AITOR DE LA HORRA**  
Ikaslie

Ondo dauela uste dot. Aukera horrekin, hizkuntza bat ezaguketan ez dauenak beste hizkuntza baten egitteko aukerie eukiko dau. Jentiek elegidu daixela ze hizkuntzatan egin.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK HESI BARIKO ZATIAK** Gernika Oinezkoen Zumardia oso txukun gelditu da. Hala diote herritar askok eta askok. Hala ere, Bizkaia etorbideko bizilagun batzuk kexu dira, pasabidearen zati baten hesi handiagoa eta zuhaixkak faltan sumatzen dituztelako. Zarugalde paretik zubi berrirainoko bidean, zati baten hesia txikiagoa da eta ez dute zuhaixkarik landatu. Horren premia ikusi dute herritar horiek.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

### Meza bereziak Aste Santuan

Aste Santuko elizkizun berezien berri eman dugu: parrokiako eta auzoetako elizkizunak.

KIROLA /9

### Errugbi partidua gaur

Gaur, eguaztena, Arrasatek Eibarren kontra jokatu du denboraldiko azken partidua.

ZAHARRAK /13

### Rafa Fernándezi elkarrizketa

*El Correo* eta Herri Irratiko berriemaile izan zen Rafa Fernándezi elkarrizketa egin diogu.

## ASTEKODATUA

# 4

### BANKETXEETAN EGIN DAITEKE ERRENTA AITORPENA

Arrasateko lau banketxeetan egin daiteke errenta aitorpena: Banco Gipuzcoanon, La Caixan, Gipuzkoako Kutxan eta Euskadiko Kutxan. Laurek euskeraz egitteko aukera ematen dute.

## BESTEKEESANA

Orain dela 7 urte Eusko Ikaskuntzak Jorge Oteizari Urteko Gizonaren saria eman zion, baina ekitaldian gutun bat irakurri zuten, Oteiza ondoezik zegoela azalduz (...) Egun gutxira, nire anaia, Jabierri, Oteizari Zarauzko etxean argazkiak ateratzeko eskatu zioten. Biok joan ginen. Pertsonalitate mardoa bildu zen. Oteizak hartu gintuen eta bakoitzari non jarri behar zen esan zion. Ni emakume bakarra nintzen eta bere alboan jartzeko eskatu zidan. 87 urte zituen eta pertsona ikaragarria iruditu zitzaidan: saria eman ziotenean hunkitu egin zen eta negar egin zuen, eta aldi berean izugarritzko indarra transmititzen zuen. Purua erre zuen, noski. Azken liburua dedikatu zidan eta emakume iraultzaileen alde idatzi zuen".

ARANTZA OZAETA  
ARRASATE IRRATIA/03-04-10

## HERRITARRENBERBAK/ Iker Ezpeleta



*Baselina*

Lurraldearen gaineko jokamolde kirtenetara lohitzten ari garen garai hauetan hurrengo 16 urteotarako kirtenkeriak batzen dituen lurraldearen zatiko plana (gaztelarazko PTP) dugu ikusgai egunotan Debagoieneko udalgetxeetan. Ez dizuet beratu ikustera joatea gomendatzen, eta ez interesgarria ez delako, irenstezina delako baizik.

Gainetik bada ere, hona sartu nahi dizkiguten *perla* batzuk, etxebizitza eskuragarriaren eskasiari aurre egitteko... Zer? ba...mila txalet muturretik sartze proposatzen digute, Debagoienean dugun naturgune hoberenetarikoan gainera, Urkulu inguruan, alegia. Eta... norentzako izango dira etxe berri horiek? Ba ez zuretzako eta ezta niretzako ere, eskualdeko *jauntxo* berriak eroso egon daitezkeen baizik, han bertan arrantzan, arraunean, zaldi gainean eta golfean ibil daitezkeen. Zu eta ni... domeketan paseatzera joango gara, beren etxetxoak

harresien gainetik ikusi guran. Lur erabilgarriarekin bukatzen ari garen garaiotan (garapen jasagarria, noski) plan honek apenas gelditzen den eta komentatzen ez duen nekazal jarduerarekin bukatuko du. Ez kalitatezko jakirik, ez gertukorik, ez elikagaien

**"Eko-txaleta erosiko ez duen gehiengoa osatzen dutenen artekoa bazara, hobe duzu baselina eskuratzea"**

soberania, ez gure mendi eta paisaia-rik,... Udalerrien mankomunitateak alegazio moduan eskatzen duena berriz; plana motz gelditzen dela, bizi garen lurraldearen kalitatea bigarren mailako kontu bat dela eta behar duguna aktibitate gehiago dela. Guztion bizi kalitatea zapalduz, promotore gutxi batzuen estalkia besterik ez da, barnean negozio borobila, azkar aberasteko tresna dago. Gutxi batzuek jadanik eskuak igurztzen dihardute; guri, berriz, ez digu inongo graziarik egiten. Eko-txaleta erosiko ez duen gehiengoa osatzen dutenen artekoa baldin bazara.... hobe duzu lehenbailehen baselina eskuratzen hastea!

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Bereziabar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



## GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUAZTENA, 16**  
Zabala, Zarugalde 42. .... 943 77 16 30
- EGUENA, 17**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 18**  
Azkoaga, Iturriotz ..... 943 77 79 99
- ZAPATUA, 19**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- DOMEKA, 20**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 21**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- MARTITZENA, 22**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39

## TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea . 943 03 53 00  
Igualaroia . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . 943 79 39 00  
Emakumeak . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak . 112  
Gurutze Gorria . 943 76 55 76  
DYA . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak . 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea . 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak . 943 03 53 11

- ANBULANTZIARIK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Joan parrokia</b>   | <b>San Andres eliza</b>   |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)                       | Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b>  | <b>Santa Teresa eliza</b>   |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | Domeka<br>11:00 San Isidron (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)                                 |
| <b>Uribarri parrokia</b>   | <b>Santa Marinako eliza</b>   |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)  |
| Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)  | Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)   |

## OHARRAK

**DOKE TXAPELKETA**  
Egubakoitzean, apirilaren 18an, SUDCeke eta Arrasateko Udaleko ordezkariak Doke Txapelketa jokatu dute Monterongo Kondekua zelaian. Desafioa goizean izango da.

**'MAX DOTADO SHOW'**  
Apirilaren 25ean, egubakoitzean, Sobradun antzerki taldeko partaide ohiek *Max Dotado Show* ikuskizuna eskainiko dute Iamai kafetegian, gauerdian.

**NAGUSIAK ZAINTEKO**  
Sendian programaren bitartez, pertsona nagusi ezinduen familia eta zaintzaileendako heziketa ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa maiatzaren 8tik ekainaren 19ra izango da, eguenero, 15:30etik 17:00etara, Monterronen. Izena emateko azkenengo eguna apirilaren 30a da. Informazio zabalagoa, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan.

**'EGUNKARIA'-REN ALDE**  
Egunkaria Aurrera herri batzordean parte hartu gura baduzu, jo AEDra (Pablo Uranga kalea) edo batzordeko taldeen batzarretara. Harpidetza, diru bilketa eta propaganda taldeak martitzeneko elkartzen dira AEDn, 20:00ak aldera.

## AEDrenAGENDA

**HERRI URRATS**  
Maiatzaren 11n Herri Urrats izango da Senperen. Egunean bertan autobusak irtengo dira Arrasatetik, eta lan egin gura dutenak bezperan joango dira.

**ARRASATE-OÑATI LASTERKETA**  
AEDk eta Laixanek 21. Arrasate-Oñati lasterketa antolatu dute. Maiatzaren 10ean izango da.

## URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

## ORAINDELA 10URTEARRASATEN

### Sutea Zaldibarko etxe zaharrean

Zaldibar frontoi pareko Mendi-kuetarren etxe zaharrean sutea izan zen. Etxe hura hutsik egon zen aspaldian, eta jabeak eraikin osoa botatzekoak ziren. Hain zuzen ere, sua beheko solairuan piztu zen, eta suhiltzaileek goiko solairuetara heldu baino lehenago menderatu zuten.



## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### "Garitxua"

Garatxoa.  
—Garitxuak kentzeko piku-esnia ei da onena.



## ARRASATEIRRATIAFM107.7



### Mikel Markezen eta Pako Aristiren emanaldia

Apirilaren 17tik 28ra Arrasate Irratiak ez du zuzeneko emanaldirik egingo; edozelan ere, hainbat saio entzuteko aukera izango duzue.

Joan den hilean, literatura eta erotismoa gaitzat hartuta, jardunaldiak egin zituzten MUko Eskoriatzako campusean, eta orduan grabatutako saio batzuk eskainiko ditu Arrasate Irratiak. Besteak beste, Mikel Markez eta Pako Aristik kantaldia eta poesia emanaldia egin zuten, eta emanaldi hori hainbat egunean entzuteko aukera

izango duzue; baita Juan Martin Elexpuru idazleak erotismoaren gainean egindako hitzaldia ere; eta, era berean, gai beraren gainean izan zen mahai-ingurua. Alboan duzuen eskainiko ditugun saiook.

Horrez gainera, azkenaldian eskaini ditugun elkarrizketekin bildumak osatu ditugu, eta horiek goizetan izango dituzue entzungai.

Arrasate Irratiak apirilaren 28an eutsiko die berriro ere zuzeneko saioei.

## HAUGIROA!

MINIMOA	3 °C		
Eguena, 10			
MAXIMOA	23 °C		
Domeka, 13			
ASTEKO EURIA (l/m <sup>2</sup> )	20,5 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	10 °C	6 °C	11,2 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 10	16 °C	3 °C	1,9 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 11	12 °C	6 °C	15,8 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 12	16 °C	5 °C	2,3 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 13	23 °C	8 °C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak



## ASTEKO PROGRAMAZIOA

- APIRILAK 17, EGUENA**  
11:00 Elkarrizketak  
16:00 Mikel Markez, Pako Aristi
- APIRILAK 18, EGUBAKOITZA**  
11:00 Elkarrizketak  
16:00 Juan Martin Elexpurren hitzaldia literatura eta erotismoaz
- APIRILAK 19, ZAPATUA**  
11:00 Elkarrizketak  
16:00 Mahaingurua: Literatura eta erotismoa
- APIRILAK 20, DOMEKA**  
11:00 Elkarrizketak  
16:00 Mahaingurua: Literatura eta erotismoa
- APIRILAK 21, ASTELEHENA**  
11:00 Elkarrizketak  
16:00 Mahaingurua: Literatura eta erotismoa
- APIRILAK 22, MARTITZENA**  
09:00 Elkarrizketak  
18:00 Juan Martin Elexpuru
- APIRILAK 23, EGUAZTENA**  
09:00 Elkarrizketak  
20:00 Mikel Markez, Pako Aristi
- APIRILAK 24, EGUENA**  
09:00 Elkarrizketak  
21:00 Mahaingurua
- APIRILAK 25, EGUBAKOITZA**  
09:00 Elkarrizketak  
22:00 Mahaingurua
- APIRILAK 26, ZAPATUA**  
11:00 Mikel Markez, Pako Aristi
- APIRILAK 27, DOMEKA**  
11:00 Juan Martin Elexpuru



## ASTEABIHITZETAN

### Istripua Arrasateko saihebidetan

Joan den egubakoitzean istripua gertatu zen saihebidetan. Auto bik (Seat Malaga urdina eta Seat Ibiza) elkar jo zuten, aurrez aurre. Istripuaren ondorioz gizonezko bi eta emakumezko bat eskualde ospitalera eraman behar izan zituzten.

Seat Malaga urdinean senar-emazteak zihoazen. Emakumezkoa autoan harrapatuta geratu zen, eta suhiltzaileek atera behar izan zuten; Seat Ibiza, berriz, gizonezko gazte bat zihoan. Itxura guztien arabera, Seat Ibiza auto bat aurreratzen hasi eta kontrako noranzkoan zetorren Seat Malaga autoa jo zuen.

### Herri anitza, aurrera


Dagoeneko lortu dituzte Herri anitza plataforma legeztatze-ko behar zituzten 500 sinadurak. Batasuna legez kanpo utzi dutela-eta, ezker abertzalearen inguruko arrasatearrek eratu dute Herri anitza.

Behin sinadurak batuta, Herri anitza legeztatuko dute. Gaur, hilak 16, hasi eta astelehena, hilak 21, bitartean izango dute plataforma legeztatze aukera. Gero, zubia dagoela kontuan hartuta, udal hauteskundearen atarian aurkeztuko ditu zerrendak Herri anitza plataformak.

### Arrasateko Kofradiak, 105 urte

Arrasateko San Felipe Apostol Kofradiak 105 urte egin zituen domekan. Urtemugarekin batera, kofradiak irudi berria estreinatu zuen, logotipo berria.

Hemendik aurrera kalean ikusiko ditugun eskelek logotipo berria izango dute, eta kofradiaren oharrak ere irudi berriarekin batera joango dira. Kofradiak ez zuen ospakizun berezirik egin domekan, 100 urte egin zituztenean egin zuten-eta ospakizun berezia. Gaur egun San Felipe Apostol Kofradiak 10.000 bazkide baino gehiago ditu.



### 'Hire Himalaya' ikus-entzunezkoa

Joan den eguaztenean Amaia antzokian izan zen *Hire Himalaya* ikus-entzunezkoak jende ugari erakarri zuen. Alberto Inurrategik egin dituen Himalaiako 14 gailur handietatik 12tan Felix anaia izan zuen alboan, eta hari eskainitako lana da *Hire Himalaya*.



### USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Atsedena laburra

**A**piril erdialdera heldu gara eta Aste Santua begi bistan daukagu. Aurten ere ARRASATE PRESS egiten dugunok atsedentzua hartzeko aukera aprobetxatzeko dugu. Apiril bukaeran GOIENKARIA prestatzen hasiko garen arren, hurrengo ARRASATE PRESS maiatzaren 9an jasoko duzue.

Urtero moduan, gutako

askok kanpora joko dugu, denbora laburrean herriko albisteak ahazteko ez bada ere. Dena den, aholku bat: errespetu guztiak fededun sutsuak zaretenoi, eta zuek ez hartu aholkua aintzako-tzat. Beste guztiei, kanpora jotzen baduzue, kontu eduki zein jomuga aukeratzen duzuen. Herrialde askotan Aste Santuko prozesioak egiten dituzte eta nire uste-

tan ez dago hori baino gauza *tetrik*o-akorik. Ikusi duenak badaki zertaz ari naizen.

Herrian gelditzen direnek, besteak beste, urtean behin jokatzen den doke jokoa ikusteko aukera izango dute. Horrekin batera, herrian lasai-lasai egoteko aukera izango dute, eta horrek ere ez du preziorik. Oportxoaren bueltan San Andres eta Musakolako jaiak datoz, baita hauteskunde nahasiak eta uda usaina ere. Pilak kargatuta etorri!

## ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

### ARRASATEKO GAZTETXOAK ERE OHITURARI EUTSIZ

Elkarteen Arteko Doke Txapelketa oraingo egubakoitzean jokatuko dute, hilaren 18an, baina motorrak berotzen joateko, joan den domekan Arrasateko gaztetxoek izan zuten dokean egiteko aukera, goizeko hamaiketean. Hala, hainbat gaztetxo elkartu ziren Monterrongo zelaian, eta, beste behin,

SUDCeko lagunek antolatuta, gaztetxoek kirol zahar hori hurragotik bizi izan zuten. Horrenbestez, ikusi egin beharko da, egubakoitzean, Arrasateko zein elkartek duen abilezia handien, baina hori gutxienezkoa da; izan ere, urtean behin dokean egiteko ohitura ez galtzea da garrantzitsua. /X.U.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



**Bonaventure Diesel**  
Pepe  
Levis

Otalora z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72



**EUSKARAREN NORMALIZAZIOA/** Arrasateko Euskalgintzak errenta aitortpena euskaraz egitea bultzatu gura du

# Herritarrek hainbat aukera dituzte errenta aitortpena euskaraz egiteko

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Euskalgintzak aukera daukagun leku guztietan euskaraz egitea bultzatu gura du. Hala, errenta aitortpena euskaraz egiteko dauden aukerak ezagutzera eman ditu, eta herritarrek Ogasunarekin harremana euskaraz izatera animatu ditu.

Arrasateko Euskalgintzak euskararen ezagutza eta erabilera pizteko motibazioa bultzatzen dihardu, eta aurten, besteak beste, errenta aitortpena euskaraz egitea bultzatu gura du. Dagoeneko zabalik dago errenta aitortpena egiteko epea: apirilaren 7an zabaldu zen eta ekainaren 25ean bukatuko da. Euskalgintzak herritarrei jakinarazi gura die errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera asko daudela. Horrekin batera, aukerak zeintzuk diren azaldu gura dizkie.

## IAZKO KOPURUA HANDITU

Iaz 223 arrasatearrek egin zuten errenta aitortpena euskaraz. Orain dela urte be, 2001ean, ostera, 275 lagunek aukeratu zuten euskaraz egitea. Arrasatearrek Bergarako Ogasun bulegora eskualdekora joan behar izaten dute, baina gura izanez gero, aitortpena banketxeetan eta aholkularitzetan ere egin dezakete.

Arrasaten dauden bederatzita banketxeetatik lauk bakarrik -Banco Gipuzcoano, La Caixa, Gipuzkoako Kutxa eta Euskadiko Kutxa- eskaintzen dute errenta aitortpena egiteko zerbitzua, eta lau horietan euskaraz egiteko aukera dago. Arrasateko Udaleko Euskara Saila harremanetan izan da banketxeekin, eta banketxeok konpromisoa erakutsi

dute. Horietako batzuek urteak daramatzate zerbitzua euskaraz ematen; izan ere, batzuk Gu Be Bai hitzarmenaren barruan daude.

## EZ DUTE KANPAINA HANDIRIK EGIN


Arrasateko Euskalgintzak ez du gai horrekin errenta aitortpena kanpaina handirik egin gura izan. Batetik, kanpaina handiak egin barik lor ditzakeen emaitzak jakin gura ditu; eta, bestetik, horren bitartez aurrerantzean euskararen aldeko lanean praktikan jartzeko lan-metodologiak aztertu gura ditu.

Arrasateko Euskalgintzaren barruan, taldetxo batek herritarrek euskara erabiltzen animatzeko ahaleginak egiten dihardu; eta erabilera hori praktikan jartzeko baliabideak erakutsi eta motibatu gura ditu. Orain dela hilabete eta erdi taldetxo horrek errenta aitortpena euskaraz egin daitekeen ekintza dela ikusi zuen, eta horregatik, dauden aukerak ezagutzera ematen dihardu.

Horrez gainera, ardura hori hartu zuen Arrasateko Euskalgintzako taldea herriko banketxeekin harremanetan jarri zen, herritarrei aitortpena euskaraz egiteko zerbitzua eskaini ziezaiten.

## AUKEREZ BALIATU ETA ERABILI

Behin errenta aitortpenak euskaraz egiteko dauden aukerak ezagutzera eman ondoren, herritarrek euskaraz egitea animatzea besterik ez da falta: "Jendea kontzientea izatea zenbat eta zerbitzu gehiago euskaraz eskatu, orduan eta eskaintza euskaldunagoa izango dela. Euskaldunon erantzukizuna da pauso horiek ematea, Ogasunarekin ere euskaraz jardutea. Azken baten, eus-



Aukera daukagun esparru guztietan euskaraz egitea bultzatu gura du Arrasateko Euskalgintzak. Adibidez, errenta aitortpenean.

*Lau banketxetan eta hainbat aholkularitzatan zerbitzua euskaraz ematen dute*

karaz egiteko aukera daukagun leku guztietan hori egitea", nabarmendu zuen Eneritz Garrok, AEDko eta, bide batez, Arrasate-

*"Zenbat eta zerbitzu gehiago euskaraz eskatu, orduan eta eskaintza handiagoa izango da"*

ko Euskalgintzako partaideak. Banketxeetako eta aholkularitzetako langileek jakinarazi dutenez, batez ere gazteek egiten

*Iaz 223 arrasatearrek egin zuten errenta aitortpena euskaraz; 2001ean, 275ek*

dute errenta aitortpena euskaraz. Nagusiagoi, ostera, terminologia teknikoegia dela-eta, pauso hori ematea gehiago kostatu zaie.

## MAISABEL ISASMENDI/ZENBAKI AHOLKULARITZAKO LANGILEA

**Zuen zerbitzuak errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera ematen du? Noiztik?**

Bai. Iaz, 2002an, hasi ginen. Baina aurretik ere beti eduki izan dugu euskarazko inprimaki bat aukeran. Iaz, ostera, errenta aitortpena egiteko euskarazko programa informatikoa eskuratu genuen eta horrekin ere egiten dugu lan. Orain, errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera gehiago daude.

**Jendea zuengana errenta aitortpena euskaraz egiteko asmoarekin joaten da?**

Egia esanda ez. Guk aukeran daukagu gaztelaniaz edo euskaraz egitea, baina errenta aitortpenaren terminologia oso teknikoa da eta badirudi gure bezeroek, badaezpada-edo, gurago dutela gaztelaniaz egitea. Iaz, behintzat, ez zigun inork euskaraz egitea eskatu.

**Hortaz, zuen iritzi, gaur egun bezeroei errenta aitortpena euskaraz egitea arrotz egiten zaie?**

Kontua ez da arrotz egiten zaiela. Izan ere, bezero askorekin harremana eta gestioa euskaraz egiten dugu. Baina badaude beste arrazoi batzuk, eragina izan dezaketena: guregana datozen bezeroek errenta aitortpen konplikatuak edukitzen dituzte, presaka etortzen dira, aitortpena egiteko epeari dagokionez denbora laburrarekin... Horrek guztiak eragin handia daukela uste dugu; hain zuzen ere, aitortpena egitean euskara ahaztu edo alde batera uzten dutela. Guregana jotzen duten bezeroek ez dituzte errenta aitortpen erraztenak egiten.

**Hala ere, zuek euskaraz tramitatzeko gertu zaude?**

Bai, jakina. Euskaraz egitea gure zerbitzuetako bat da.

## GURUTZE LASKURAIN/EUSKADIKO KUTXAKO LANGILEA

**Zuen zerbitzuak errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera ematen du? Noiztik?**

Bai. Orain dela bizpahiru urte eskaini genuen lehenengo aldiz errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera; iaz, esate baterako, jende askok egin zuen aitortpena euskaraz. Eta aurten ere askok aitortpena euskaraz egingo duten susmoa daukagu. Azken baten, geroago eta gehiagok egiten dute.

Gazte askok badakite errenta aitortpena euskaraz egin dezaketela, eta horrela egiten dute. Dena dela, etortzen diren bezero guztiei galdetzen diegu ea euskaraz edo gaztelaniaz egin gura duten; euskaraz egiteko aukera eta zerbitzua dutela gogorarazten diegu.

**Nabarmendu duzu batez ere gazteek erakusten dutela errenta aitortpena euskaraz egiteko asmoa. Nagu-**

**siagoi pauso hori ematea gehiago kostatzen zaie?**

Bai. Azken baten, euskaldun zaharrek eta txikitatik euskaraz ikasi dute nek hizkuntza hobeto ezagutzen dute eta, errenta aitortpenaren terminologia tekniko samarra izan arren, ez zaie hain arrotz egiten. Nagusiagoek, ostera, horrelako gaiak gaztelaniaz egiteko ohitura handiagoa dute eta euskarako terminologia teknikoa ez dute hain ondo ezagutzen. Pertsona nagusi askorekin, nahiz eta zerbitzua eman bitartean euskaraz berba egin, terminologia gaztelaniaz azaltzen diegu eta aitortpena bera gaztelaniaz egiten dute.

**Hortaz, datozen egunotarako aitortpena euskaraz egingo duten bezeroak espero dituzue...**

Bai. Aurten ere dezente etorriko direlakoan gaude.



HAUTESKUNDEEN USAINEAN/ PSE-EE alderdia

# Blanca Roncal Azantza izango da PSE-EE alderdiko zerrendaburua

UBANE MADERA

Atzo, martitzena, aurkeztu zuen Arrasateko alderdi sozialistak zerrendaburua. Aurten, aldatu egin dute gidaria, eta Paco García beharrez Blanca Roncal izango da Arrasaten PSE-EEko alkatezarako hautagaia. Blanca Roncalek 12 urte daramatza zinegotzi lanetan.

PSE-EEko Gipuzkoako idazkari orokor Manuel Huertasek aurkeztu zuen atzo Blanca Roncal alkatezarako. Blanca Roncalek 12 urte daramatza Arrasaten zinegotzi lanetan, eta, horrez gain, legebiltzarkide ere bada orain dela urte bi. Orain Arrasateko alkatezarako aurkeztu da, aurreneko aldiz. Medikua da, nafarra jaiotzez, eta Gasteizen bizi da.

ARRASATE PRESSi adierazi takoaren arabera, batez ere bizikidetzaren alde lan egin gura du alderdi sozialistak: "Ideia eta pertsona guztien arteko bizikidetzaren, betiere, ideia horiek demokratikoak badira, eta giza eskubideak errespetatzen badituzte".

Horrez gainera, eraikuntza soziala landu gura dute. Bakearen, justiziaren eta elkartzaren alde jardun, betiere, behar handien duten pertsonak bereziki kontuan hartuta: gazteak, etorkinak, emakumeak eta hirugarren adinekoak, besteak beste.



Blanca Roncal, zinegotzi eta legebiltzarkide izateaz gainera, PSE-EEko Euskadiko eta Gipuzkoako Zuzendaritzako kide da.

Horren harira, babes ofizialeko etxebizitzaren alde egingo dute, pertsona nagusiendako laguntza gehiagoren alde...

Eta, Arrasate herriari begira, auzoen eta erdialdearen arteko harremana indartu gura dute. Lur azpiko aparkaleku gehiago egin

(oinezkoak lasaia ibil daitezzen) eta aisialdirako azpiegiturak hobetu gura dituzte. Garraio publikoaren indartzeko asmoa ere badute.

ERLIJIOA/ Aste Santua

## Aste Santuan elizkizun ugari egongo dira Arrasaten

Aste Santuan elizkizunak izaten dira nagusi. Hona Arrasateko elizen egutegia:

### SAN JUAN ETA SAN FRANTZISKO

Eguen Santuan, 10:00etatik 12:00etara bakarkako aitortzak izango dira; 18:00etan Jaunaren afaria eta 22:00etan Ordu Santua. Egubakoitz Santuan, berriz, 08:00etan gurutze-bidea izango da; 11:00etan elkarteko penitentzia, eta 17:00etan, nekaldi eta heriotza ospakizunak. Eta, Zapatu Santuan, 22:00etan Pazko Gau Beila egingo dute. San Frantziskon, berriz, Eguen Santuan, 18:00etan Jaunaren afaria egingo dute; Egubakoitz Santuan, 18:00etan nekaldi eta heriotza ospakizunak. Eta Zapatu Santuan, 21:00etan, Pazko Gau Beila.

### SAN ANDRES ETA URIBARRI

Eguen Santuan, 18:00etan Jaunaren afaria egingo dute; Egubakoitz Santuan, 17:00etan nekaldi eta heriotza ospakizunak. Zapatu Santuan, 22:00etan, Pazko Gau Beila

izango da. Eta Pazko Domekan ez dute mezarrik esango. Urribarrin, Eguen Santuan, 20:00etan Jaunaren afaria egingo dute; Egubakoitz Santuan, 11:00etan gurutze-bidea eta 17:00etan nekaldi eta heriotza ospakizunak. Eta Zapatu Santuan, 21:00etan, Pazko Gau Beila.

### SANTA TERESA, SANTA MARINA...

Eguen Santuan, 19:00etan Jaunaren afaria egingo dute; Egubakoitz Santuan, 17:00etan nekaldi eta heriotza ospakizunak. Eta Zapatu Santuan, 20:00etan, Pazko Gau Beila. Santa Marinan, berriz, Eguen Santuan, 19:00etan Jaunaren afaria egingo dute, eta, 22:00etan Ordu Santua. Egubakoitz Santuan, 11:00etan, gurutze-bidea izango da eta 18:00etan nekaldi eta heriotza ospakizunak. Eta Zapatu Santuan, 21:30ean, Pazko Gau Beila. Eta, kontxesionistek, Eguenean, 19:00etan Jaunaren afaria egingo dute; Egubakoitz Santuan, 18:00etan nekaldi eta heriotza ospakizunak, eta Zapatu Santuan, 22:00etan Pazko Gau Beila.



## Altamirako jaiak, eguraldi eta giro onean

Eguraldi paregabeak lagunduta, auzotar ugari hartu zuten parte Altamirako jaietan. Adin guztiendako ekitaldiak izan ziren; tartean, ohiturari jarraituz, Altamirako erretiratuei omenaldia egin zieten: Axun Zoritari, Nikolasa Madinabeitiari, Isidra de la Calleri eta Candelo Hernándezi. Jose Luis Iñarra parrokoaren omenez ospatzen dituzte Altamirako jaiak.

## LABUR

### Paco García Batzar Orokorretarako aurkeztuko dute

Nahiz eta aurten Paco García ez izan Arrasateko alkatezarako zerrendaburua, politikan buru-belarri jardungo du, eta Batzar Orokorretarako aurkeztuko da. Deba-Urolatik bigarrena izango da zerrendan. Baina hark esan digunez, azken urteotan batzarkide bi lortu izan ditu PSE-EEk; hortaz, Paco García hautatua izateko aukera asko ditu. Hain justu ere, irabaziz gero, beste arrasatear baten lekua hartuko luke Paco García: Rafi Romeroren lekua.

### Azoka kalekoei erantzun die Arrasateko Udalak

Azoka kaleko laugarren zenbakiko auzotarrek idatzia aurkeztu diote Udalari, zera esanez: batetik, automobilak espaloien gainean aparkatuta egoten direla; eta, bestetik, Azoka eta Mondragonés kaleak elkartzen diren lekuan oztupoa dagoela. Hori guztiori auzotarrendako arrisku-tua dela uste dute. Horren harira, Arrasateko Udalak erantzun du espaloietan aparkatutako autoekin beharrezko neurriak hartuko dituela; eta, bestetik, oztupoaren egoera aztertu egingo duela.

### Berriro ere argi barik, haizearen eraginez

Domekan ibili zen haize bortitzak Markuleten pinuren bat bota zuen argindarraren kableen gainera, eta horren ondorioz Arrasateko zenbait lekutan argi barik geratu ziren domeka gauean. Hain justu ere, erdigunean, Zigorrolan eta Erguinen 01:00etan itzuli zen argindarra. Baina Udalan eta Garagartza auzoko zenbait etxebizitzatan astelehen eguerdira arte argi barik egon ziren.

### Industria Erakusketaren gaineko gida

Arrasateko Udalak Industria Erakusketaren gaineko gida egitea erabaki du. Gida horrekin, batetik, bisitariei erakusketa ulertzen lagundu gura die; eta, bestetik, erakusketa ikusi ez duenaren gain interesa piztu gura du.

Gida egiteko Eusko Jaur-laritzaren %50eko dirulaguntza izango du Arrasateko Udalak.



HIRIGINTZA/ Egitamu Orokorra aurkeztu dute

# Diputazioaren onespena jaso eta gero, Egitamu Orokorra aurkeztu dute

UBANE MADERA

**Diputazioaren onespena jaso eta gero, Egitamu Orokorra aurkeztu zuen Arrasateko Udalak komunikabideen aurrean. Alkateak jakinarazi zuen Egitamu Orokorra herritarrendako tresna dela eta udaletxean dagoela gura duenarendako erabilgarri.**

Aurkezpen ekitaldian Xabier Zubizarreta alkatea, Amaia Larrañaga zinegotzia eta Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikariburua egon ziren. Hiruron artean azken hamaika urteotan egindako lanaren emaitza aurkeztu zuten: Egitamu Orokorra; izan ere, alkateak gogorarazi zenez, nahiz eta Egitamua egiteko erabaki formala 1994an hartu, urte bi lehenago Tomas Zubizarreta arkitektoa dagoeneko hasita zegoen Egitamua lantzen.

Egitamu Orokorra arrasatearrendako tresna erabilgarria izango dela nabarmendu gura izan zuen alkateak. Baita Egitamua ikusi eta irakurri gura duenak udaletxean bertan edo Uda-

laren webgunean ikus edo kontsulta dezakeela ere. Adibidez, herritarren batek bere lursailarekin zer egin dezakeen jakin gura badu, Egitamuan kontsultatu beharko du.

Horrez gainera, Egitamua egiteko orduan herritarrek izandako parte-hartzea nabarmendu zuen. Alkatearen esanetan, parte-hartze horri esker Egitamu Orokorrean adostasun maila handia lortu da. Guztira 328 alegazio egin dizkiote Egitamua Orokorri.

Edozelan ere, Egitamu Orokorra malgua izango dela azpimarratu zuen alkateak, eta aldaketak onartuko dituela.

Arau subsidiarioekin konparatuta, berriz, Egitamu Orokorrak gauzen kudeaketa hobeto lantzen duela adierazi zuen, baita herritarren eskaerei, zalantzei... azkarrago erantzuteko aukera ematen duela ere.

Orain, Egitamua herritar guztiengana helarazteko kanpaina informatiboari ekingo diote. Besteak beste, esku-orriak bidaliko dituzte arrasatearren etxebizitzetara, apirilaren 28an hasi eta maiatzaren 5a bitartean.



Arrasate antolatuko duen Egitamua aurkeztu zuten Amaia Larrañagak, Xabier Zubizarretak eta Juan Antonio Urdangarinek.

**Monte taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**GORKA** ileapaindegia peluqueria

Orduetgia:  
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

**BASATI TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TLF. 943 711767



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



ERRUGBIA

# Arrasatek Eibarren kontra jokatu du gaur, eguaztena, denboraldiko azken partidua

Arrasatearrek 17-29 galdu zuten zapatuan Gasteizko Gaztedi taldearen kontra

XABIER URZELAI

**Arrasate Errugbi Taldeari denboraldia luze egin zaio. Mondragoetarrek jokalar gutxiarekin jokatu dituzte azken partiduak -ordezko barik-, eta emaitzetan nabari da hori. Arrasatek 16 jokalarirekin egin zien aurre gasteiztarrei, eta Gaztedi nagusi izan zen.**

Arrasateko taldea denboraldia amaitzeko irrikan dago: partidu asko jokatu ditu, eta jokalar asko min hartuta daude. Horrekin batera, taldeak dagoeneko ez dauka goiko mailara igotzeko aukerarik, eta horrek guztiak eragin zuzena dauka emaitzetan. Getxon sekulako jipoiak jaso zuen, baina joan den zapatuan Garagartzan jokatuako partidua parekatua goa izan zen.

Arrasatek txarto hasi zuen partidua, oso makal, eta konturatu orduko Gaztedik hiru entsegu zituen eginak. Arrasate 16 jokalarirekin zen, baina Garikoitz Herizek atzamar baten min

hartu eta Arrasatek 15 jokalarirekin egin behar izan zion aurre Gaztediri. Lehenengo zatian gasteiztarrek izan ziren nagusi, baina bigarren zatian gauzak dezentete aldatu ziren.

Arrasateko taldea gogor zelairatu zen, markagailuko aldea murrizteko asmoz, eta lortu ere lortu zuten. Bigarren zatiko erdialdean bazirudien Arrasateko mutilek beste esfortzu bat eginenez gero partiduari buelta emateko gai izango zirela, baina asko eskatzea zen hori. Gaztedik ondo eutsi zion partiduari, eta 12 puntuko aldearekin nagusitu zen.

Gaur arratsaldean, berriz, Arrasatek Eibarren kontra jokatu du azken norgehiagoka. Ea Liga Txapelketa behar den moduan amaitzen duen.

## GAZTE MAILAKOAK, TXAPELDUN!

Gazte mailan, Arrasateko eta Eloorrioko jokalariek bat egin zuten Liga Txapelketa jokatu ahal izateko, eta bi herrietako jokalariez osatutako taldea Euskadiko txapeldun izan berri da. Zorionak!



XABIER URZELAI

Norgehiagokan izan ziren jokaldietan argi geratu zen Arrasateko eta Gasteizko jokalarien artean lehia handia dagoela.

## Arrasateko taldeko xakelari bi Euskadiko Txapelketan egongo dira

X.U.

**Arrasateko San Andres Xake Taldeko Luis Angel Ortegak eta Josu Tornayk Euskadiko Txapelketa jokatu dute Aste Santuaren ostean. Era berean, Fran Miguel aretxabaletarrak ere txapelketan parte hartzeko txartela zeukan, baina arrazoi pertsonalengatik ez da Euskadiko Txapelketan egongo.**

Ibarreko hiru jokalar daude apirilaren 22tik 27ra bitartean jokatu den Euskadiko Txapelketarako sailkatuta. Arrasateko San Andres Xake Taldeko Luis Angel Ortega eta Josu Tornay eta Aretxabaletako Arlutz taldeko Fran Miguel. Azken hori, baina, ez da txapelketan egongo.

Josu Tornayk Gipuzkoako Txapelketa hirugarren postuan amaitu zuen, eta postu horri esker eskuratu zuen Euskadiko Txapelketarako txartela; izan ere, Gipuzkoako Txapelketako lehenengo hirurak sailkatzen dira Euskadiko Txapelketarako. Talde bereko Luis Angel Ortega bigarren izan zen Gipuzkoako Txapelketan, eta hark ere Euskadiko Txapelketarako txartela eskuratu zuen. Arrasateko taldeko xakelari bi horiek, hortaz,



ARRASATE PRESS

Josu Tornay eta Luis Angel Ortega Euskadiko Txapelketan egongo dira.

Euskadiko Txapelketan egongo dira datorren astean.

## EUSKAL HERRIKO ONENEN ARTEAN

Apirilaren 22tik 27ra arte jokatu den xake txapelketan Euskal Herriko 24 xakelari onenak ibiliko dira nor baino nor gehiago. Txapelketak bost egun iraungo du, eta argi dago bost egunok gogorrak izango direla. Txapel-

keta Subilla Gasteiz herriko (Araba) Ruta de Europa hotolean jokatu da, eta partidak arratsaldeko lauretan hasiko dira.

Txapelketan maila oneko xakelariak egongo dira, baina guztien artean xakelari bi azpimarratu beharra dago: Felix Izaeta eta Mario Gómez maisuak. Edozelan ere, maisutasuna taula gainean erakutsi behar da.

## Gipuzkoako Selekzioa Athleticen kontra Atxabalpen

X.U.

Aurten ere, urtero moduan, Realak Gazte Mailako Nazioarteko Futbol Txapelketa antolatu du. Txapelketa Aste Santuko oporraldian jokatu da, eta Euskal Herriko eta Estatuko taldeez gainera, kanpoko hainbat talde ere egongo dira.

Guztira zortzi taldek hartuko dute esku apirilaren 18tik 21era bitartean jokatu den txapelketan: Reala bera, Athletic, Osasuna, Gipuzkoako Selekzioa, Real Madril, Bartzelona, Atalanta (Italia) eta Pachuca (Mexiko).

Txapelketako finala apirilaren 21ean jokatu dute, Anoe-

tan, baina finalera iristeko Gipuzkoako futbol zelai askotatik pasatu beharko dute taldeok. Atxabalpeko zelaietan ez dugu talde atzerritarrik izango, Gipuzkoako Selekzioa eta Athletic izango dira eta nor baino nor gehiago oraingo egubakoitzean, hilaren 18an.

Norgehiagoka ikusgarria izango da, eta garrantzitsua; izan ere, txapelketa ondo hastea izango da talde bien helburua.

Partidura joateko asmoa duzuenok jakin ezazue sarrera arruntak bost euro balio duela; bazkideek, berriz, hiru euro ordaindu beharko dituzte eta gazteek eta erretiratuek salneurri berezia izango dute: euro bi.

KARATEA

## Arrasateko Saioa Gimnasioko karatekak, Gipuzkoako txapeldun

Joan den zapatuan Gipuzkoako Taldekako Karate Txapelketa jokatu zen, eta Arrasateko Saioa Gimnasioko karatekak lehenak izan ziren *kumite* modalitatean eta bigarrenak *kata* modalitatean. *Kumite*-an, Erik Martín, Iban Galán, Mikel Ríos, Mikel Zabarte, Xabier Lasagabaster eta Carlos Sánchezek hartu zuten esku, eta erraz nagusitu ziren. *Kata* modalitatean, berriz, Iban Galán, Goizeder Caballero, Iban Rodríguez eta Carlos Sánchezek hartu zuten parte, eta bigarren sailkatu ziren. Postu horiei esker, Arrasateko karatekak Euskadiko Taldekako Txapelketarako sailkatu dira.



FUTBOLA

# Mondrak lehenengo postuan hartuko du Aste Santuko oporraldia

Erregional mailako taldeak 1-4 irabazi zion zapatuan Elgoibarri


XABIER URZELAI

Mondrak preferente mailara igotzeko beste pauso txiki bat eman du: Elgoibarren irabaztea, hain zuzen. Arrasatearrek derrigor irabazi beharra zuten, bazekiten-eta Urolak eta Zumaiakok ez zutela kalerik egin. Mondrak lau gol egin zituen, baina emaitzak ez du zelaian gertatu zena islatzen.

Elgoibar atzeko postuetan dagoen taldea da, baina ez da erregional mailako talde makal horietakoa. Zapatuan Elgoibarko bigarren taldeak argi erakutsi zuen erasoan min egiteko gaitasuna daukala, eta Arrasateko atzelariek uste baino estuasun handiagoak izan zituzten. Elgoibarrek erasoko jokoa egin zuen, eta Mondrak ondo aprobetxatu zuen hori; lehenengo zatia amaitzeko minutu gutxi geratzen zirenean Jon Muruamendiarazek Mondraren lehen gola egin zuen (0-1).

**BIGARRIN ZATIAN, HOBETO**

Mondrak bigarren zatian utzi zuen partidua erabakita, baina bigarren zatiko azken minutuetan izan zen hori. Elgoibarrek erasoko jokoa egiten jarraitu zuten, eta Arrasateko taldeak atzera egin zuen. Beste kontraeraso baten, baina, Muruak huts eta bikoa egin zuen. Dagoeneko 32 gol daramatza Arrasateko aurrelariak.



XABIER URZELAI

Mondrak kontraerasoko jokaldietan egin zituen partiduko lehenengo gol biak.

sateko aurrelariak. Huts eta bikoa erekin bazirudien Mondrak ez zuela inongo arazorik edukiko, baina Elgoibarrek berehala egin zuen gola (1-2). Gola egitearekin batera, Elgoibarko taldeak gora egin zuen eta Arrasatekoak behe- ra. Bazirudien Mondrari sufritzea tokatuko zitzaioela, geratzen ziren minutuak arrasatearrek atzealdean jokatu zituztela, baina ez zen horrela izan. Orduan jokatu zuen Arrasateko ondoen: taldeak aurrera egin zuen, eta era-

soan hasi zen buru-belarri. Eta berehala etorri zen lan horren ordaina, Iker Lópezek bat eta hirukoa egin zuenean. Lasaitasunaren gola zen, eta Arrasatek, lasaiago jokotuta, gol aukera garbiagoak izan zituen.

Partidua biribiltzeko gola Illartek egin zuen (1-4). Mondrak aste biko atsedena izango du, eta oportetarik bueltan hil edo biziko hiru norgehiagoka izango ditu: Eibar eta Soraluez etxean, Atxabalpen, eta Segura kanpoan.

## Kenci Arrasatek 70-79 galdu zuen Jostaldi liderraren kontra

Kenci Arrasatek liderraren kontra jokatu zuen zapatuan. Partidua ez zen ona izan, baina markagailuan izan zen parekotasunak emozioa eman zion zeingehiagokari.

Kenci Arrasatek gogor hasi zuen partidua. Liderra zuten aurrean, baina etxeok ez ziren kikildu. Berehala aurreratu ziren Kenci Arrasateko mutilak (9-0),

baina liderrak berehala murriztu zuen alde hori. Bigarren eta hirugarren laurdenak oso parekatuak izan ziren. Bigarren laurdena 31-34 amaitu zen, eta hirugarrena, 55-56. Laugarren laurdenean, Kenci Arrasate ondo hasi zuen, baina Jostaldik oso akats gutxi egin zituen eta azkenean bederatzi puntuko aldearekin irabazi zuen. Orain, Kenci Arrasate

tek aste biko oporraldia izango du, eta hurrengo partidua Arabako EHU taldearen kontra izango da.

Deskantsuan Kenci Arrasate Taldeak bazkideen artean hainbat sari zozketatu zituen. Carlos Uranga eta Alberto Zeziaga izan ziren sarituak, eta a zer-nolako sariak, gainera. Bi lagunendako talasoterapia saio eta bazkari eder bana irabazi zuten.

### ZALDIBARARETOFUTBOLA

#### EMAITZAK

**A MULTZOA**

Saukelu Scream - You Know!	2-5
Betrayer - Fuxxion	7-2
Lasagabaster - Etxinal!	7-5
Driblin.es.vg - Bikain Akademia	1-0

**B MULTZOA**

AC Surcos - Aurrera Bolie	6-1
Koka Juniors - Goma-2	1-0
AT Celaya - Makanaki	-----
Iriztu taberna - Etxerat	1-16

#### SAILKAPENA

**A MULTZOA**

1. Betrayer	12	7
2. You Know!	11	7
3. Saukelu Scream	9	7
4. Lasagabaster	8	7
5. Dribling.es.vg	8	7
6. Etxinal!	5	7
7. Fuxxion	3	7
8. Bikain Akademia	0	7

**B MULTZOA**

1. Etxerat	12	7
2. AC Surcos	12	7
3. AT Celaya	8	7
4. Koka Juniors	7	7
5. Goma-2	6	7
6. Iriztu Taberna	4	7
7. Makanaki	3	7
8. Aurrera Bolie	2	7

#### HIRUGARREN FASEA

**A MULTZOA**

Betrayer
AC Surcos
Saukelu Scream
Koka Juniors

**B MULTZOA**

Etxerat
You Know
AT Celaya
Lasagabaster

#### HIRUGARREN FASEA ABIAN

**HIRU ASTEKO ATSEDENAREN OSTEAN HIRUGARREN FASEA HASIKO DA**

Joan den astean jokatu zen bigarren faseko azken jardunaldia, eta zortzi taldek egingo dute txapelketan aurrera. Hurrengo partidua ikusteko, baina, hiru aste ibaroen beharko dugu, maiatzaren 10ean hasiko da eta hirugarren fasea. Txapelketa luzatzeko asmoz, final-laurdenak jokatu beharrean sailkatu diren taldeek hirugarren fasea jokatuko dute, eta multzo bakoitzetik sailkatzen diren lehenengo bi taldeek finalerdiak jokatuko dituzte. Txapelketa luzea geratzen da oraindik!


**AZKEN JARDUNALDIAN, DENETIK**

Joan den astean jokatu zen bigarren faseko azken jardunaldian denetik izan zen. Koka Juniors eta Betrayer taldeetako jokalaririk banak partidu biko zigorra bete beharko dute, partiduan ostikadak lekuz kanpo jotzeagatik. Horrekin batera, antolatzaileek barkamena eskatu gura diete Makanaki taldekoei, joan den asteko partiduko ordua aldatu egin zutelako antolatzaileek eta Makanakik ordu aldaketa horren berririk izan ez zuelako. Horrez gainera, antolatzaileek Bikain Akademia taldeak izan duen portaera salatu gura dute, azken partidura azaldu ez zirelako.

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

 Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA**  
LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

arbolapeta



beinke



LITERATURA/ Udal Liburutegiak berbaldiak eta ikuskizuna antolatu ditu datozen egunotarako

# Liburuaren Egunarekin bat egiteko, hainbat ekitaldi antolatu ditu Udal Liburutegiak

IKER BARANDIARAN

Urteroko ohiturari jarraituz, Artasateko Udal Liburutegiak hainbat ekintza antolatu ditu Liburuaren Egunaren harira. Aurretik egindako erakusketa, ipuin kontaketa eta literatura solasaldiez gain, datozen egunotarako berbaldiak eta ikuskizuna antolatu ditu.

Apirilaren 23an nazioartean Liburuaren Eguna ospatzen dela aprobetxatuz, Arrasateko Udal Liburutegiak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunotarako. Urteroko ohitura horri jarraitzeko asmoz, apirilean hainbat ekintza egin dituzte: *Irakurtzearen gozamina* leloa duen erakusketa interesgarria jarri dute; *Prosper Mérimée* eta *La oveja negra* liburuen gaineko literatura solasaldiak egin dituzte; eta Alaitz Murok ipuinak kontatu ditu. Horie guztiak Monterronen egin dituzte, eta ipuin kontaketa, Monterronen egiteaz gain, Santa Marinako auzo liburutegian ere antolatu dute. Esan beharra dago ekintza horiek guztiek

oso harrera ona izan dutela.

## AZOKA, IKUSKIZUNA ETA BERBALDIA

Datozen egunotarako ere antolatu dituzte ekintzak, eta egongo da zer ikusi. Apirilaren 14tik 30era arte liburu hondatuen azoka antolatu dute. Liburutegiko bazkide direnei Monterron liburutegiko liburu zaharrak opari egingo dizkiete. Bazkide bakoitzak gehienez liburu bi eskuratu ahal izango ditu, azokako liburuak agortu arte.

Gainerako ekitaldiak Aste Santu ostean izango dira, ahalik eta jende gehien ikus ahal ditzan. Hain zuzen ere, apirilaren 29an, martitzenean, Bihotz Bakartien Klubak *Poeta hilen kluba* ikuskizuna eskainiko du Monterronen. Ikuskizuna 19:30ean izango da eta poesia, musika eta irudia uztartuko ditu. Jakina, sarrera doan izango da.

Horrez gainera, apirilaren 30ean, eguaztenean, Juan Carlos Alonso umeen psikologoak *Irakurri irakurri baino lehen* leloa duen berbaldia egingo du Santa Marinako auzo liburutegian. Berbaldia 18:30ean izango da.



ARRASATE PRESS

Irakurzaletasuna bultzatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte. Irudian, AEDK iraganean antolatutako Literatura Muntaia.

*Eskerrik asko, Arrasate.*

*Ehunka eta ehunka*

*sinadurekin*

*hauteskundeetan*

*parte hartzea posible*

*egin dugulako.*

HERRI  
ANITZA



BEHEKODENDATIK

# Amador Mellado

**ARGI PLASTIC ENPRESAKUE**

XABIER URZELAI

Amadorrek oin dala 14 urte sortu euen Argi Plastic enpresie, baiñe lehenago be beste enpresa txiki bi sortu zittuen. Gaur egun 22 lagun dabitz Argi Plastic enpresan lanien: tailerrien 17, ofiziñan hiru eta erakusketak egitten bi. Entrebistie egin dogun bittartien telefonue jo eta jo ibilli da.

**Txikittan ze gure zeuen izen?**  
Enpresarixue. 17 urtekin sortu neuen lelen enpresie.

**Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?**

Hortan nabil, eta gustora nabil. Ze esango zeuskio Saddam Husseiniei?

Herrixe bertan behera ez ixteko.

**Eta Bushei?**  
Hitlerren geruago eta antz haundixague daukela.

**Eta Aznarrei?**  
Beste Mussolini bat dala.

**Drogak legalizauko zeuke?**  
Batzuk bai.

**Eta prostituziñue?**  
Lanbide bat da; hortan, bai.

**Pelikula bat? Liburu bat?**

**Musika talde bat?**  
Forrest Gump / La Desidia / Joaquin Sabina.

**Nora juengo zitzake gustora?**  
Ointxe noien lekura, eskietan.

**Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?**

Andrie, jana eta handik bueltatzeko medixoren bat.

**Etxeko lan gorrotagarriena?**

Plantxie.

**Juergazalie zara? Juergarako leku bat?**

Bai. Arrasate.

**Puntuau Mondragueko girue.**

Seikue emungo dutzegu.

**Ze dauko ona udaberrixek?**

Parajiek polittaguet egoten die-la, berdetute.

**Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?**

Mettrue.

**Jefiari ze esango zeuskio gus-**



*“Mondraguen PVCzko leihuek oso ondo funtzionetan daue, oso izen onik ez daukien arren”*

tora?  
Momentuen arabera.  
**Tranpan ibilteketan norbaittekin, zeñekin?**  
Maitte dozun batekin.  
**Pertsona baten, zertan fije-tan zara lehenengo?**  
Berba egitteko moduen.  
**Denpora librien ze egitten dozu?**  
Neguen eskiau, eta udan be deportie egin.  
**Janari eta edari gustokue-nak?**  
Jateko, peskaue; edateko, ardaue.  
**Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?**  
Momentu honetan ez dakit.


*“Etxie bera zelakue dan arabera materixal bateko edo beste leihuek daukogu”*

**Etxe etxe egitten dozue lan: bestion etxiek zuen lantegi.**  
Bai; izen be, egun dana etxetxe pasetan dogu, baiñe denpora laburre egoten gare etxe bakotxien.  
**Leihuek jarteko bertigue daukenak txarto pasauko dau, ala?**  
Etxietan ez da problemarik egoten. Gaiñera, bertigue daukon langille bat daukogu enpresan, eta, klaro, ha ez dogu andamixora bielketan.  
**Leihuek klase askotakuek egitten dittuzue; alderik bai?**  
PVCzkuek, aluminiozkuek eta mistuek egitten dittugu, eta etxe bakotxerako mota bateko edo beste materixala daukogu.

**NIREBIDAIAHURA / Mikel Loiti**

Peru eta Bolivia / 2003ko otsaila eta martxoa

**L**a Pazen, Boliviako hiriburuan utzi genuen Mikel joan den astean. Mikelen esanetan, Bolivia Peru baino pobreagoa da, eta kalean igartzen da hori: “La Pazko bizilagunek kalean egiten zuten bizi-modua, eta egunerokoa eskuratzea zen euren helburua. Bat baino gehiago zabor artean ikusi nuen, janari bila”. Horrelako egoerak bertatik bertara ikustea gogorra dela dio Mikelek, baina azkenerako ohitu egin zen: “Leku batera iritsi eta berehala ohartzen zara bertakoak pobreak diren edo ez. Pobreia izatea zer den benetan konturatzeko, baina, egun gehiago behar dira.



*“Gogorra da jendea zabor artean janari bila ikustea”*

Mikelen esanetan, hango janariarekin kontuz ibili behar da: “Hangoek urdaila ohituta daukate, baina hemendik joanez gero, jakiekin eta urarekin kontuz ibili behar da. Nahiz eta jatetxeetan jan, tripetatik gaizki egon nintzen behin baino gehiagotan”.

Mikelek ez zuen bidaia bakarrik egin: “Bidean jende askorekin elkartu nintzen, leku askotakoak, eta elkarrekin egin genituen egun batzuk”. Besteak beste, Argentinako, Mexikoko eta Ingalaterrako lagunak egin ditu bidaietan, eta guztiekin ere ondo konpondu da: “Agian hori izan da bidaiako gauza gogorrenetako bat. Benetako lagunak egin ditut han, eta egun batzuk elkarrekin egin eta gero, agur esatea gogorra izan zen”. Esan bezala, jende askorekin elkartu da Mikel bidaietan. Ederto moldatu da guztiekin, baina gai delikatuen gainean berba egiterakoan kontu handiz ibili beharra zegoen: “Juduei palestinarren gainean galdetzerako orduan hobe zen larregi ez galdetzea, badaezpada ere. Beste behin, hainbat egun egin nituen neska ingeles batekin, eta behin, gerraren gainean galdetu nion. Hauxe izan zen haren erantzuna: ‘Ez ditut gerrak atsegin, baina Iraken kontrako gerra beharrezkoa da’. Egun gutxi egin genituen batera”. Bidaiaren gainean baino gehiago, han bizi izandakoen gainean egin dugu berba lerrrootan. Datorren zenbakian bidaiaren nondik norakoari eutsiko diogu berriro ere.

XABIER URZELAI



Hiriek alderatuta, herritxoetan bizimodua gogorra baina lasaia da.

**ad Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**PUB HAIZEA**



**HIES BERRI**

Tel.: 943 79 26 99



ZAHARREN ETXETIK

# “Iradozikunak ematen hasi, eta berriemaile bilakatu nintzen”

IKER BARANDIARAN

Rafa Fernández Bilbon jaio zen. Ezkondu eta Arrasatera etorri zenetik hainbat eta hainbat elkartetan lanean ibili da. Horrez gainera, *El Correo* eta Herri Irratik berriemaile izan da.

**Noiz eta non jaio zinen? Zelan bizi izan zenuen haurtzaroa?**

1931n jaio nintzen, Bilbon. Hiru arreba eta ni neu, lau anai-arreba gara, eta 12 urte nituenean ama hil zitzaigun. Gogoan daukat Espainiako gerran bonbardaketak jasan genituela eta gosea pasatu genuela. Oso gaztetan ikasketak utzi egin behar izan nituen, aitari laguntzeko.

**Gaztetan zertan ibili zinen lanean?**

13 urterekin burdindegi baten hasi nintzen, eta aisialdi denboran Kontabilitatea ikasi nuen.

**Eta zelan ezagutu zenuen Arrasate?**

8 urterekin, uda baten, oportetan etorri nintzen, aitak hemen lagun batzuk zituelako. Geroago, Accion Catolica taldearen topaketa batzuetan nire emaztea izango zena ezagutu nuen: Amaia Gorroño goitia arrasatearra. 1957an ezkondu egin ginen.

**Ezkondu eta Arrasatera etorri zinen?**


Bai. Ezkondu eta hamabost egunera Ulgor tailerrean lanean hasi nintzen, eta Ferrerías kalea joan nintzen bizi izatera. Ulgorren 36 urte egin nituen. Orain Ferreríasen bizi naiz.

**Herrian hainbat ekimenean buru-belarri ibili zara...**

Bai. Arrasatera etorri eta denbora laburrera parrokiako abesbatzan hasi nintzen. Musika oso gustuko dut, eta ahots ona ei daukat. Bestalde, Udalpeko batzarraren urteak egin nituen, eta han, Udalpen, SUDC eta danborrada sortu genituen.

**Danborradan urtetan ikusi zaitugu...**

Bai. 1978tik 1992ra danborrari nagusi izan nintzen. Pisu handia neukan, baina oso ondo pasa-



IKER BARANDIARAN

Rafa Fernandez ezaguna da herrian, batez ere egin dituen berriemaile lanengatik.

*“1978tik 1992ra Arrasateko San Juan jaietan danborrari nagusi izan nintzen”*

tzen genuen.

Herritar askok *El Correo*-ko berriemaile moduan ezagutzen zaitu...

Bai. Txikitatik *El Correo* irakurri izan dut, aitak urtetan han lan egin zuelako. Arrasatera etorri eta gero sasoiko Arrasateko berriemaileari, Angel Landari, iradokizunak egiten nizkion. Halako baten hura ordezkatzeara proposatu zidan. Horrela, 60ko hamarkada hasieratik 90eko hamarkada hasierara arte berriemaile izan nintzen. Berriren bat egonez gero, idatzi eta bidali egin nuen. Ez nuen egunero idaz-

*“Herri Irratian herriko albisteez gain futbol partidu batzuk eman nituen”*

ten, albistek egoten zirenean bakarrik.

Herri Irratian esatari lanak egin zenituen...

Bai. Proposamena egin zidaten eta baietza eman nien. Sarritan Arrasateko albistek kontatzen nituen. Horrez gainera, irratian futbol partidu batzuk eman nituen. Partiduak ematea gaitzagoa zen.

**Eta orain parrokoari laguntzen zabilta...**

Hala da. Orain dela 7 urte Jose Mari Astigarragari laguntzen hasi nintzen eta orain Genaro Lekuonari laguntzen diot.


LABUR

## 1936an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute maiatzaren 10ean

1936an jaiotako emakumeek urteroko ospakizuna egingo dute maiatzaren 10ean. 13:00etan meza izango dute San Juan Bautista elizan. Horren ondoren bazkaria antolatu dute Musakola Hostalean. Interesatuak izena eman beharko dute maiatzaren 2a baino lehenago Muruamendiaren gozotegian (Erdiko kalea). Izena ematerakoan 10 euro ordaindu beharko dituzte.

## Abaroa elkarteak Corellara (Nafarroa) txangoa antolatu du apirilaren 24rako

Abaroa erretiratuen elkarteak Corellara (Nafarroa) txangoa antolatu du apirilaren 24rako. Goizean irtengo dira eta hamarretakoa Logroñon egingo dute. Horren ondoren Corellara joko dute: kontserba-enpresa bat eta moskatel upelategiak bisitatuko dituzte, eta Azagrako Venecia Hostalean bazkalduko dute. Bi autobus jarriko dituzte, eta joan gura duenak 15 euro ordaindu beharko ditu.



## Uribarriko Briska Txapelketako irabazleak

Aurrekoan Uribarriko karta-joko txapelketaren berri eman genuen arren, elkarteko arduradunek Briska Txapelketa irabazi zuen bikotea argazki eta guzti ateratzea eskatu ziguten.

Briska Txapelketan bederatzi bikote ibili ziren nor baino nor gehiago, eta Angelita De La Torrek eta Luisa Parmak osatutako bikotea izan zen garailea (erretratuan).

Ez da lehenengo aldia Angelitak eta Luisak briska txapelketaren bat irabazten dutena. Mendi ibilaldira zihozela harropatu genituen biak. //B.

## Amaiur taberna

- Oilasko erreak egiten ditugu, enkarguz, etxera eramateko
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Platertxoak
- Eguneko menuak

Etxeko berezitasuna: txorizoa infernu erara.

Ignacio Zuloaga 6. Arrasate. Tel.: 943 77 19 28



### Metal aroztegia eta PVC


Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

### Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkia

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20



- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50






ARRASATE  
**Iker Uribetxebarria**  
Apirilaren 16an, 25 urte.  
Zorionak, Apo! TMT.



ARRASATE  
**Andoni Barrutia**  
Apirilaren 18an, 25 urte.  
Zorionak! TMT.



ARRASATE  
**Mikel Coto**  
Apirilaren 20an, 25 urte.  
Zorionak, Koto! Eta gora  
rock-and-rolla! TMT.



ARRASATE  
**Ariane Amozarrain**  
Apirilaren 20an, 2 urte.  
Zorionak! Familiakoen par-  
tetik.



ARRASATE  
**Ander Amozarrain**  
Apirilaren 22an, 4 urte.  
Zorionak! Familiakoen par-  
tetik.



ARRASATE  
**Maider Letona**  
Apirilaren 25ean, 10 urte.  
Zorionak! Etxeko en parte-  
tik.



ARRASATE  
**Garazi Gartzia**  
Apirilaren 27an, 12 urte.  
Zorionak! Lagun biren par-  
tetik.



ARRASATE  
**Oihane Merino**  
Apirilaren 11n, 11 urte.  
Zorionak! Etxeko en parte-  
tik.



ARRASATE  
**Iñaki Korta**  
Apirilaren 12an, 30 urte.  
Zorionak, promesa! Zure  
jarraitzaileak.



ARRASATE  
**Pablo Berezibar**  
Apirilaren 29an, 1 urte.  
Zorionak! Etxeko en parte-  
tik.



ARRASATE  
**Elena Abasolo**  
Apirilaren 11n, urtebete-  
tzea. Zorionak! Lankideen  
partetik.



ARRASATE  
**Lur Delgado**  
Apirilaren 15ean, 15 urte.  
Zorionak! Etxeko en parte-  
tik.



ARRASATE  
**Goio Arana**  
Apirilaren 17an, urtebete-  
tzea. Zorionak! Lankideen  
partetik.



ARRASATE  
**Sergio Azkarate**  
Apirilaren 29an, 28 urte.  
Zorionak, *Torete!* Laneko-  
ak.



ARETXABALETA  
**Amagoia Lasagabaster**  
Apirilaren 19an, 26 urte.  
Zorionak, eta kontuz txo-  
kolatearekin! Lanekoak.



ARRASATE  
**Jon Baltzategi**  
Apirilaren 21ean, 24 urte.  
Zorionak, eta dedikatoriak  
koadrilakoei!



ARRASATE  
**Aritz Unamuno**  
Apirilaren 19an, 24 urte.  
Urte askotarako! Santan-  
derko lagunak.



ARRASATE  
**Ander Ugalde**  
Apirilaren 19an, 24 urte.  
Zorionak, *Pelle!* Koadrila-  
koak.




ARRASATE  
**Aritz Berasaluze**  
Apirilaren 27an, 3 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta  
familiakoak.



ARRASATE  
**Garazi Garitaonandia**  
Apirilaren 12an, 6 urte.  
Zorionak! Gurasoen par-  
tetik.



ARAMAIO  
**Bingen López**  
Apirilaren 24an, 12 urte.  
Zorionak! Aita, ama, Ander  
eta familia.



ESKORIAZTA  
**Haika Aizpurua**  
Apirilaren 12an, 20 urte.  
Zorionak! Goienako lanki-  
deak.



ARRASATE  
**Oihana Pagoaga**  
Apirilaren 14an, 7 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta ize-  
ba.



ARRASATE  
**Eva Romero**  
Apirilaren 11n, 26 urte.  
Zorionak! Etxekoak eta  
anaia David.



ARRASATE  
**Agustín Torre**  
Apirilaren 14an, urtebete-  
tzea. Zorionak! Etxekoak,  
koinata eta lobak.



ARRASATE  
**Pepi García**  
Apirilaren 5ean, urtebete-  
tzea. Zorionak! Etxekoak,  
ahizpak eta lobak.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**Adi!**

Argazkiak emateko lekua:  
**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.

**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

**"PAL"**

Burindegia  
Brikolajea  
Tresneria

Uriharri etorbidea 3  
Tel.: 943 79 31 98 ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea

**TXIRRITA**

Taberna  
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



EZETZASMATU



UBANE MADERA

Non dago industria erakusketa?  
Arrastoa: iazko ekainean inauguratu zuten.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!



ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Mistol garbitzailea**  
1,5 litroko botila

**1,10€** 183 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**AURORA OJANGUREN**endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Aurora!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Santa Marinar.**

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko Aste Santuaren gaineke oroitzapenak

JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL

**E**rramu-domekako arratsaldean hasten zen Aste Santua, bezperen osteko gurutze-bidearekin San Josepera. Pasoetako ikonoei hautsa kentzeko garaia heltzen ari zen.

*Pipar eta Tomate Kristoren flagelatzaile lotsabakoak genituen*

*Aste Santuak aisialdirako uzten zuen aukera bakarrenetakoa dokea zen*

zibilen ohorezko zaintzarekin. Egubakoitzean, berriz, elizkizun bi egiten zituzten ordu berean, bata San Frantziskon, euskaraz, eta bestea parrokiari, espainolez. Parrokiatik Kristo Etzandako kutxa ateratzen zuten, eta betebeharrak horretan, jeneralean, urteko kintoak ibiltzen ziren. San Frantziskotik, berriz, San Juan Ebangelistaren irudi txiki eta apal bat eta



'NIRE HAURTZAROKO ARRASATE'

Prozesio bi egiten zituzten: bata San Frantziskotik irteten zen eta bestea parrokiatik. Portaloian bat egiten zuten biek.

Ama Birjina Nahigabetua ateratzen kaleratzen zituzten. Prozesiook Portaloian bat egiten zuten eta ibilaldi osoan Musika Bandak heriotza-martxak jotzen zituen. Prozesio bateratuak Madalena kaletik behera

hartzten zuen eta Etxe Txikietatik pasatu ondoren Nafarroa etorbidea eta Biteri etorbidea uzten zituen atzean; Portaloitik gora, parrokiari amaitzen zuen. Aste Santuak aisialdirako uzten zuen aukera bakarreneta-

koa dokea zen. Eguen eta Egubakoitz Santuko prozesioa amaituta, gizarte maila guztietako arrasatearrok joko horretan ematen genuen arratsaldea, batez ere, Zaldibarko parkean eta Ferixalekuan.

Eguen eta Egubakoitz Santuan prozesioak irteten ziren, giro arranditsuan. Eguenean Pipar eta Tomate, Kristo, Caifas eta beste pasoak ziren protagonistak; Musika Bandaren laguntzarekin *Stabat mater dolorosa* eta *Atoz pekataria* kantatzen zuten, guardia



# Txirritola

ARAMAIO / Eguaztena / 2003ko apirilaren 16a / 62. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxe: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


## Ia 20 sagardogilek hartuko dute parte aurtengo Sagardogile Egunean

UBANE MADERA

Txirritola Euskara Elkarte buru-belarri dabil aurtengo Sagardogile Eguna prestatzen. Datorren apirilaren 27an izango da, eta gutxi gorabehera 20 bat sagardogilek parte hartzea espero dute. Hala adierazi digu Mikel Arantzabalek, antolatzaileetako batek.

San Prudentzio bezperan sagardo usaina izango da nagusi Bizente Goikoetxea plazan. Txirritola Euskara Elkarteak gonbidatuta, 20 bat sagardogilek euren edaria herritarren eskura ipiniko dute, gura duenak proba dezan. Gainera, iaz baino sagardogile gehiago izango dira. Azkoagan, Untzillan, Ibarren, Eguzkierripan, Barajuenen... Herriko ia auzo guztietan egindako sagardoa egongo da plazaren bueltan. Herriko trikitilariak eta bertsolariak giroa berotzen lagunduko dute; eta, ohitura den moduan, pintxoak eta taloak ere egongo dira. Bitxikeria moduan, aramaiarrak ibiliko dira taloak egiten; iazko Sagardogile Egunean egindako Talo ikastaroan parte hartu zutenak, hain zuzen ere.

Eta, horrelakoetan ohi denez,



UBANE MADERA

Sagardogile Egunean bezpera moduan, sagardo ikastaroa izan da Aramaion; jende mordoak parte hartu du.

sagardoa edan gura duenak edalontzia erosi, eta gero gura duen guztia edan ahal izango du. Aurtan bi eurotan salduko dute edalontzia.

Hirugarren Sagardogile Eguna ospatuko dute aurtan. Eguna horren helburua da herriko sagardogileei egiten duten lanarengatik esker ona adieraztea.

### BERRITASUNAK

Berritasun bi egongo dira aurtengo Sagardogile Egunean: alde batetik, argazki erakusketa ipiniko dute plazan bertan. Txirri-

*Sagardoa egiteko tresneria ipiniko dute eta tresneria horrekin muztioa egingo dute plazan*

tolako kideak baserri baserri ibili dira sagardoa egiteko prozesuari argazkiak ateratzen, gero herritarrei erakusteko.

Era berean, sagardoa egiteko tresneria ipintzeko asmoa dute antolatzaileek (dolarea, kupelak, sagarra...); eta tresna horiekin plazan bertan muztioa egin gura dute, hain zuzen ere, sagardoa egiteko prozesua guztiei zuzen-zuzenean erakusteko.

### IKASTAROA

Bestalde, Sagardogile Egunean bezpera moduan, Sagardo ikastaroa egin dute Aramaion. Jende ugari hartu du parte; besteak beste, sagardoa egiten dute 24 baserriarrek, baita inguruko herrietatik etorritakoek ere. Txirritola Elkartearen iritziz, sekulako arrakasta izan da.

## Egun bete-betea izan zuten Arbel Egunean

UBANE MADERA

Arbel Egun biribila izan dute aurtan bazkideek. Goizean meza entzun eta elkartaren kontuak onartu eta gero, guztiek batera bazkaldu zuten eskolako jangelan. 85-90 bat lagun elkartu ziren. Bazkalostean, berri, herri kirolak izan zituzten kiroldegian eta gauean, pilota partiduak.

Arbel Elkarteak batzar orokorra egiten duenean, zelanbait, aramaiarrak guztiek dute egun hori aprobetxatzeko aukera; izan ere, makina bat ekitaldi antolatzeak ohitura du Arbel Elkarteak.

Aurtan ere hala izan da. Goi-

zean elkartaren gaineko batzar orokorra egin zuten, eta elkartaren kontuak onartu zituzten bazkideek. Horren ostean bazkaria egin zuten. Eta bazkalostean, 17:15ean kiroldegira joan ziren guztiak; izan ere, han VI. Urrezko Aizkorarako kanporaketa jokatu zuten Iñaki Azurmendik eta J.J. Barberenak, eta Iñaki Azurmendik irabazi zuen. Horren aurretik Saralegi eta Atxa harri-jasotzaileek erakustaldia egin zuten.

Gauean pilota partidua egon zen: Legorburuk eta Errandonea Lak Badiola III.aren eta Gabarri II.aren kontra jokatu zuten. 22-21 izan zen emaitza, Legorbururen eta Errandonea I.aren alde. Hortaz, partidu entretenigarria izan zen.



MIKEL ARANBURU

Urrezko Aizkoran Iñaki Azurmendi gailendu zen.

### LABUR

#### Areto futboleko aste bukaerako emaitzak

Bañerako talde biek galdu egin zituzten aurreko aste bukaerako partiduak. Hala, gazte mailako taldeak 1-5 galdu zuten Aurrera taldearen kontra eta neskek Kopa Txapelketako aurreneko partidua 10-1 galdu zuten Jesus Obreroren kontra.

Bestalde, Aste Santuko oporrak direla-eta, Bañerako taldeek jai hartuko dute. Gero, oporren ostean, maiatz inguruan hasiko dituzte partiduak. Bien bitartean, atse-denerako tarteak izango dute oportetan.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal Kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zujiako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

### ARGI BARIK

Domeka gauean, 21:30ak inguruan, argia joan zen Aramaion. Antza denez, berriro ere arbolaren bat jausi zen Iberdrolaren kableen gainera. 03:00ak ingurura arte egon ziren argi barik aramaiarrak.

### OPORRAK


Datozen bost egunotan itxita egongo dira Aramaion udaletxea, liburutegia eta ludoteka. Hain justu ere, liburutegia eta ludoteka hilaren 29ra arte egongo dira itxita, apirilaren 28an San Prudentzio eguna delako. Udaletxeari dago-kionez, Pazko Asteazabalduko dute; gero, San Prudentzio egunean, berriro itxiko dute.

### PALETA TXAPELKETA

Urrak eta Pérezek irabazi dute Paleta Txapelketa. 35-26 irabazi zieten Garaitari eta Flores. Hirugarren lekuan Arriolabengoa eta Azurmen-di geratu dira eta laugarren Barandiaran I.a eta Oianguren izan dira.

### ZINEMA

*Harry Potter, la cámara secreta* emango dute.



## 'Lurgorri'-ren izena eta izana berreskuratu dute Aramaion

Goiz benetan bete izan zuten zapatuan Jose Mari Azkarraga *Lurgorri*-ren omenez. Batetik, *Lurgorri*-ren bizitzaren gaineko liburua aurkeztu zuen haren loba Vélez de Mendizabalek. Gainera, *Lurgorri*-ren gaineko mahai-ingurua egin zuten, eta Paco Salaberrik, Vélez de Men-

dizabalek berak eta Jose Mari Azkarragak (Eusko Jaurlaritzako Justizi sailburuak) hartu zuten parte. Gero, pasealeku bati *Lurgorri* izena eman zioten, ohorezko aurrezku eta guzti; eta bukatzeko, idazlearen gaineko erakusketa zabaldu zuten. /ARGAZKIAK: MIKEL ARANBURU


## BOTEPRONTOAN/ Josemari Vélez de Mendizabal · Historialaria eta 'Lurgorri'-ren loba

*“Aramaiorekin hain maiteminduta zegoen, Aramaioko toponimiako izena hartu zuen”*

**J**ose Mari Azkarraga *Lurgorri* protagonista izan da egunotan. Asteburuan bertan makina bat ekimen egin dituzte idazlea gogora ekartzeko. Tartean, haren loba Josemari Vélez de Mendizabalek *Lurgorri*-ren gaineko liburua idatzi du. Hara zer kontatu zion Arrasate Irratiari, labur:

### Bizitza laburra baina emankorra izan zuen *Lurgorri*-k...

Jaiotzez errenteriarra zen, baina oso txikitik udak pasatzera Aramaiora etortzen zen. Oso estua izan zen Aramaiorekin zuen harremana. 1925-1937 urte bitartean, 12 urte oso sakonak bizi izan zituzten Azkarragatarrek Aramaion. *Lurgorri* Aramaion hazi zen, nahiz eta denbora luzeen Madrilen ematen zuen, familia Madrilen bizi zen-eta. Madrilen Zuzenbidea ikasi zuen eta, era berean, Euzko Ikasle Batza sortu zuen Madrilen bertan. Elkarte hartako presidente izan zen. Euskal kulturaren aldeko giro ikaragarria suspertu zuen. Euskal kulturaren eragile zuten eta sakona izan zen Madrilen, nahiz eta oso gaztea izan. Orduantxe ekin zion idazteari. Produkzio handiena kazetagintzan izan zuen. *Euzkadi* egunkarian artikulua ugari idatzi zituen,



*“Euskal kulturaren eragile zuten eta sakona izan zen Madrilen; orduan ekin zion idazteari”*

baita *Euzko Langile* aldizkarian ere, *Gudari*-n... Bizitza politikoa eta sindikalagintzan ere jardun zuen, Solidaridad de Trabajadores Vascos-en zegoen afiliatua. Leintz ibarrean eta Aramaioko ibarrean oso lan handia egin zuen. Gerra piztu zenean, Amaiur batailoiko fundatzaileetako bat izan zen. Gero EAJk fronteko gerrako korrespondentzaren izendatu zuen, bai hemengo frontean baita Asturiasen eta Santanderren ere. Gerraren gainean oso artikulua gogorak eta bortitzak bidaltzen zituen, oso estilo bizi eta onean. Gero komisario politikoa izendatu zuten Aristimuño batailoian, baita San Andresen ere. Santiañako Errendizioa deitu izan den faltukeria horretan atzeman zutenean, El Duesora eraman zuten; han epaitu egin zuten eta Larrinagara eraman zuten 1937ko azaroan. Urte hartako

*“Oso famatua izan zen (...); baina 37an hil zen, eta haren irudia, nolabait, ezabatu egin da”*

abenduaren 16an Derioko kanposantuan fusilatu egin zuten. Aste hartan 600 bat gazte fusilatu zituzten faxistek.

### Nondik datorra izena?

Aramaiorekin hain maiteminduta zegoen, Aramaioko toponimiako izena hartu zuen. Izan ere, *Lurgorri* Tellamendiko esparrutxo bat da. Eta ospetsu egin zuen izen hori.

### Orain *Lurgorri*-ren gaineko liburua idatzi eta aurkeztu duzu...

Liburu apala da. *Lurgorri*-ren gainean askoz gehiago idatz daiteke. Nik uste dut idazle bezala oso ona dela, baita kazetari bezala ere. Poeta ere bada, poeta ikaragarria. Espetxean zegoela egin zuen azkeneko lana euskal presoek ezkutuan argitaratzen zuten *Espetxean* izeneko aldizkarian egin zuen, hil baino zortzi egun lehenago; Lauaxeta zenaren azkeneko poemari sarrera bat egin zion.

### Ezaguna izan zen?

Oso famatua izan zen. Arrasaten mitinak ematen zituen, adibidez. Baina 37an hil zen eta haren irudia, nolabait, ezabatu egin da. **Euskal Herrian bizi duen egokora kontuan hartuta, erreferentzia dugu *Lurgorri*?**

Duda barik. Demokrata ikaragarria zen *Lurgorri*.



## ERRETRATUZAHARRA

Aramaioko  
meza-mutilak  
Aste Santuan

Aste Santua iritsi dela-eta, sasoi horren gaineko argazkia ekarri dugu oraingo astean. Aramaio-koa da, 1946-1947. urte ingurukoa. Eta, ikusten duzue, urte hartako Aste Santuko elizkizunetan laguntzen jardun zuten meza-mutilak ageri dira. Meza-mutil dezente dira; normalean ez ziren horrenbeste egoten. Baina elizkizunak garrantzitsuak izaten zirenean laguntzaile gehiago hartzen zituen parrokoak.

Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara: Lucio Agirre, Alatz Arana, Martin Arana, Bittor Mendialdua, Juanito Agirre eta Iñaki Aldabe.

Meza bereziki batera prozesioak egiten zituzten Aramaion, santuen irudi, Amabirjina eta guzti: San Joan, Andre Maria doloretakoa, nazarenoa, gurutzeta, hilkutxa...Gure berriemaileak prozesioen gaineko honako bitxikeria hau kontatu digu: andari edo andazain izateko (irudi erlijiosoak eramaten dituztenak) enkantean erosi behar izaten zituzten euren postuak,



herritar ugari egoten zen-eta irudi erlijioso horiek eramateko gertu. Hain justu ere, Erramu-domekan egiten zuten enkantea. Irudiren bat eraman gura zuenak dirua eskaintzen zuen horren truke, eta, jakina, gehien eskaintzen zuenak eramaten zuen. Normalean eskaera erlijiosoak eginda

zituztenak edo oso debozio handia zutenak joaten ziren andazain.

Prozesioak Eguen Santuan eta Bariku Santuan izaten ziren. Eta garrantzitsuena Bariku Santukoa zen; izan ere, abesbatzak parte hartzen zuen, baita Guardia Zibilak ere; hain justu ere, guardia zibilak Andra Mari

doloretakoaren eta hilkutxaren ondoan joaten ziren, festa-jantziekin, dotore-dotore jantzita.

**Argazkia eta Informazioa:** Mertxe Mondragón  
**Urtea:** 1946-47

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zurginek lan  
egiten zuten  
kantoia

Arrasateko erdialdera sartzeko ateetako bat Zurgin kantoian dago. Garai baten herrian bost arku zeuden, baina gaur egun hiru baino ez daude Arrasateko erdialdea zaintzen. Horietako bat Zurgin kantoia da, *krimenaren kantoia* bezala ere ezaguna. Izenorde horren jatorria honako hau da: Kanto horretan hil zuten Monterongo kondea, Santiago Aranguren.



≈ 1974 Goialdean dagoen argazki zaharra Juan Miguel Epeldek ateratakoa da. Kantoiko zorua behin baino gehiagotan berritu dute.



2003 Garai baten Aramaiotik eta Elorriotik zetozenak Zurgin kantoitik sartzten ziren Arrasatera. Zurginak egoten ziren kale horretan.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**UGARTE**

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

**Aretz**  
Taberna

Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32





**PROFESIONAL**  
**liberalen**  
**GIDA**

## **AHOLKULARITZA**

**ASEGI AHOLKULARIAK**  
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate  
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

**ASESORIA ARRASATE**  
Erdiko kalea 32, 1. Arrasate  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00  
asesoriaarrasate@telefonica.net

**EMUN KOOP. E.**  
Uriburu 9, behea. Arrasate  
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26  
emun@emun.com

**GERTU AHOLKULARIAK**  
Otalora 38 B. Arrasate  
Tel. 943 79 94 21 Faxa: 943 79 86 44  
gertu@conet.es

## **ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**  
Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate  
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgoe@euskalnet.net

## **ABOKATUAK**

**LIA ALTUNA  
BEGOÑA LASAGABASTER**  
Iturriotz 15, 1 A. Arrasate  
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

## **APAREJADOREAK**

**JUAN MARI OSINAGA**  
Zerkaosteta 17 behea  
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09  
zutarri@infonegocio.com



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... ☎ 943 77 05 57

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 ..... ☎ 943 71 27 93

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... ☎ 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... ☎ 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma ..... ☎ 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22